

ERAIKUNTZA BERRIRAKO PROIEKTUA IDAZTEA – Bikaintasun maila

Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda: Ingurumen- irizpideak



1. ERANSKINA: ESKAKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukia, nahitaezko espezifikazio minimo guztiak eta baloratzekoak betetzen dituzula baieztatzeko. Nahitaezko irizpideak bete ezean edota betetzen dituzula egiaztatzen duen abalik aurkeztu ezean, eskaintza ez dugu kontuan hartuko esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Baloratzekoak diren espezifikazioei dagokienez, espezifikazioa betetzen dela egiaztatzeko abalik aurkeztu ezean, atal horretan punturik gabe geldituko da eskaintza. (Puntuazio horrek abantaila gehien duen eskaintza identifikatzeko balio du).

ENPRESAREN IZENA:			
NAHITAEZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA	MEMORIA-ORRIA
Proiektuaren A energia-kalifikazioa	<input type="checkbox"/>	1	
Eraikina egiten erabilitako energiaren eta sortutako karbono-aztarnaren adierazlea lortu da	<input type="checkbox"/>	1	
Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak (EEH) kudeatzeko azterlana eta % 80ko balorizazioa gutxienez	<input type="checkbox"/>	1	
Ingurumen Kudeaketarako azterlan	<input type="checkbox"/>	1	
Agregakin birziklatuen % 30 erabilera egokietan	<input type="checkbox"/>	1	
Zura eta zurezko produktuak legezko iturrietatik eta mehatxatu gabeko espezieetatik eskuratu dira	<input type="checkbox"/>	1	
Lurzoruetan, ateetan eta leihoetan eta estalduretan erabiliko diren zura eta zurezko produktuak modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriak	<input type="checkbox"/>	2	
Ohol aglomeratuek E1 klaseko emisio-mugak dituzte	<input type="checkbox"/>	1	
Ur-hornidurako instalazio efizienteak	<input type="checkbox"/>	1	
Soluzioak gehitu dira eraikinean energia- eta ur-kontsumoaren jarraipena egiteko	<input type="checkbox"/>	1	
1. AUKERA: Proiektuaren ingumen-jasangarritasunaren kalifikazioa (IJK), Eraikuntza jasangarrirako giden metodologiaren arabera: % 57.	<input type="checkbox"/>	3	

BALORATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK	PUNTUAK (%) ¹	BAI	ABAL MOTA	MEMORIA-ORRIA
1. AUKERA				
Proiektuaren ingumen-jasangarritasunaren kalifikazioa (IJK), Eraikuntza jasangarrirako giden metodologiaren arabera: % 57 baino handiagoa.		<input type="checkbox"/>	3	
2. AUKERA				
MATERIALAK: Material birziklatuen ehunekoak.		<input type="checkbox"/>	4	
MATERIALAK: PIA edo baliokidea duten materialen kopurua.		<input type="checkbox"/>	5	
URA: Urak berrerabiltzeko proposamenak.		<input type="checkbox"/>	1	
BARRUKO AIREAREN KALITATEA: Pinturek eta bernizek I. motako ekoetiketen KOLEi buruzko irizpideak dituzte.		<input type="checkbox"/>	6	
EKOSISTEMAK: Eraikinak inguruko biodibertsitatean duen inpaktua gutxitzen duten irtenbideak gehitu dira.		<input type="checkbox"/>	1	

¹ Esleipen-irizpideetan ingurumen-alderdietarako zehaztutakoaren arabera.

JARRAIBIDEAK

«**ABAL MOTA**» zutabean, baloratzekoa den espezifikazio edo irizpide bakoitza betetzen dela ziurtatzen duten ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo dokumentuak sartu dira, edota informazio hori jasota duen dokumentazioa; hala ere, beste mota bateko egiaztagiri baliokideak ere onartuko dira, baldin eta ezarritako irizpideak betetzen direla argi adierazten badute.

Dokumentuek honako zenbaki hauek dituzte:

1.	Enpresaren konpromiso-adierazpena eta neurriaren xehetasuna
2.	Modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriko diren zurak edo zurezko produktuak 
3.	«Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gidak» (http://construccionsostenible.eus) aplikatzearen ondoriozko dokumentua: emaitzen fitxa, eskuratutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikatu ezin diren neurrien justifikazioa
4.	Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidako kalkulu-tresna; Ihoberen webgunean eskura daiteke: https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-uso-materiales-recicladados-en-construccion-2
5.	PIA edo baliokidea edukitzea eskatuko zaien materialen zerrenda 
6.	I. motako ekoetiketak (Europako etiketa ekologikoa, aingeru urdina...) edo baliokidea dituzten pinturen edo bernizen zerrenda 

«**MEMORIAREN ORRIA**» zutabean, lizitazio-dokumentuan abala zein orrialde edo eranskinetan erantsi den adieraziko da.